

**OSASUN SAILA****382**

EBAZPENA, 2007ko abenduaren 3koa, Osasun sailburuordearena, pertsonal ez-sanitarioarentzako kanpoko desfibriladore automatikoak (KDA) erabiltzeko prestakuntza emateko diru-laguntzetarako deialdia iragarri zuen 2007ko urriaren 30eko Agindua zuzentzen duena.

Pertsonal ez-sanitarioarentzako kanpoko desfibriladore automatikoak (KDA) erabiltzeko prestakuntza emateko diru-laguntzetarako deialdia iragarri zuen 2007ko urriaren 30eko Aginduan (2007ko azaroaren 19ko EHAA, 222. alea) huts bat atzeman da. Horregatik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko ekainaren 1eko 155/1993 Dekretuaren 24.2.b artikuluan ezarritakoaren arabera, huts hori zuzendu egin behar da.

Aginduaren 11.3 artikuluan, honako hau dioenean: «... gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari,...».

Honako hau esan behar du: «... gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote Osasun sailburuari,...».

Vitoria-Gasteiz, 2007ko abenduaren 3a.

Osasun sailburuordea,  
RAFAEL CERDÁN ARANDIA.

**INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA****383**

AGINDUA, 2007ko abenduaren 10ekoa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuarena, Kantauriko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren 1. aldaketa behin-behinean onartu, jendaurrean jarri eta administrazio publikoentzuzunaldia eskaintzea erabakitzen duena.

Kantauriko isurialdeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana abenduaren 22ko 415/1998 Dekretu bidez onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak.

Plana onartuta, antolamendurako oso agiri baliotsua lortu dugu ibaien ertzetako lurralde sentikorrei euren ingurumen balioen, ur arazoan eta hirigintzarako du-

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD****382**

RESOLUCIÓN de 3 de diciembre de 2007, del Viceconsejero de Sanidad, de corrección de errores en la Orden de 30 de octubre de 2007, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan subvenciones para la formación de personal no sanitario en la utilización de desfibriladores externos automáticos (DEAs).

Advertido error en el texto de la Orden de 30 de octubre de 2007, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan subvenciones para la formación de personal no sanitario en la utilización de desfibriladores externos automáticos (DEAs), publicada en el BOPV. n.º 222, de 19 de noviembre de 2007, en virtud del artículo 24.2.b del Decreto 155/1993, de 1 de junio, sobre el Boletín Oficial del País Vasco, se procede a su corrección.

En el artículo decimoprimer, apartado tercero de la Orden, donde dice: «...podrá interponer recurso de alzada ante la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, ...»

Debe decir: «...podrá interponer recurso de alzada ante el Consejero de Sanidad, ...»

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de diciembre de 2007.

El Viceconsejero de Sanidad,  
RAFAEL CERDÁN ARANDIA.

**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO****383**

ORDEN de 10 de diciembre de 2007, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se aprueba inicialmente la 1.ª modificación del Plan Territorial Sectorial de ordenación de los Ríos y Arroyos de la Vertiente Cantábrica y se acuerda someterlo a información pública y audiencia de las administraciones públicas.

El Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Márgenes de los Ríos y Arroyos de la Vertiente Cantábrica fue aprobado por el Consejo del Gobierno Vasco mediante el Decreto 415/1998 de 22 de diciembre.

La aprobación del Plan ha supuesto el disponer de un documento de ordenación muy valioso en orden a otorgar a estos territorios sensibles correspondientes a

ten gaitasunaren araberako osoko tratamendu bat eman ahal izateko.

Lurraldearen Arloko Plana indarrean sartu zenetik ia hamarkada bat pasatu denean, plana aldatu beharra dagoela iritzia da, ondorengo arrazoiengatik:

– Uren Zuzendaritzak landutako Lurzorua bere uholde-arrisku mailaren arabera erabiltzeko irizpideak LAPen sartzea.

– LAPen eranskin moduan gehitzea, batetik Uren Zuzendaritzak egin edo homologatu berri dituen azterlan hidraulikoetan kalkulatu eta eguneratutako uholde-orbanen mapak eta, bestetik, «azterlan hidraulikoak diseinatzeko irizpide teknikoek» dokumentua.

– LAPeko Araudian Garrantzi Komunitarioko Leku izendatu diren ibai-tarteak (Ibaietako GKL) arautzeko aplikatu beharreko arauen zehaztapenen aipamena sartzea, Europako Batzordearen 2004ko abenduaren 7ko 2004/813/EE erabakiaren ondorioz onartutako Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauari, eta 2006ko uztailaren 19ko 613/2006/EE Zuzentarauari jarraituz.

– Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak emandako EAeko Natura 2000 Sareko Ibaietako GKLen zerranda eta horien kokapenaren gaineko mapa LAParen eranskin moduan sartzea.

– Behar denean, LAParen edukiak 2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentara eta Eusko Legebiltzarreko Uraren 1/2006 Legea egokitzea.

– Araudian Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak adierazitako hainbat egokitzapen eta zuzenketa egitea.

Maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzkoaren 10.10 artikulua, lehenengo xedapen gehigarrian egiten duen aipamenez, baita Lege bereko 14. artikulua ezartzen duenez, Lurraldearen Arloko Planetan egin nahi diren aldaketak Eusko Jaurlaritzak ezarritako prozedurari jarraituz egingo dira, baldin eta plan horien berrikusketa orokorrik edo funtsezkorrik eskatzen ez badute.

Agindu hori betez, irailaren 9ko 206/2003 Dekretua egin zen, Lurraldearen Antolamenduari buruzko Jarraibideetan, Lurraldearen Zatiko Planetan eta Lurraldearen Arloko Planetan funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen duena.

Alde horretatik, aipatu behar da Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak 2007ko uztailaren 6an emandako agindu bidez adierazi zela aldaketa hau ez

las márgenes de los ríos un tratamiento integrado en atención a sus valores medioambientales, a su problemática hidráulica y a su potencialidad urbanística.

Transcurrida casi una década desde la entrada en vigor se ha estimado necesario la modificación del mencionado Plan Territorial Sectorial por los siguientes motivos:

– La incorporación a la Normativa del PTS de los «Criterios de uso del suelo en función de su grado de inundabilidad» elaborados por las Dirección de Aguas.

– La incorporación al PTS, como sendos anexos, de los mapas de las manchas de inundación actualizadas calculadas en los Estudios Hidráulicos realizados u homologados recientemente por la Dirección de Aguas, y del documento de «Criterios técnicos de diseño para los estudios hidráulicos» elaborado asimismo, por la Dirección de Aguas.

– La incorporación a la Normativa del PTS de una referencia específica sobre las determinaciones normativas de aplicación como regulaciones propias en los tramos de los ríos declarados Lugares de Importancia Comunitaria de Tipo Fluvial (LIC Fluviales) de conformidad con la Directiva 92/43/CEE del Consejo de Europa, por las decisiones de Comisión Europea 2004/813/CE, de 7 de diciembre de 2004 y 613/2006/CE de 19 de julio de 2006.

– La incorporación al PTS como anexo del listado de los LIC Fluviales de la Red Natura 2000 en la CAPV y su mapa de localización facilitados por la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental.

– La adaptación, en su caso, de los contenidos del PTS a las disposiciones de la Directiva Marco del Aguas, 2000/60/CE, y a la Ley 1/2006, de aguas del Parlamento Vasco.

– La realización de algunos ajustes normativos y corrección de algunas erratas señaladas por la Dirección de Ordenación del Territorio.

El artículo 10.10 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, por remisión de la Disposición Adicional Primera así como del artículo 14 de dicha Ley, establece que las modificaciones de los Planes Territoriales Sectoriales que no supongan revisión general o sustancial de los mismos tendrán lugar mediante el procedimiento que al efecto establezca el Gobierno Vasco.

En desarrollo de dicho precepto se dictó el Decreto 206/2003, de 9 de septiembre, por el que se regula el procedimiento para la aprobación de las modificaciones no sustanciales de las Directrices de Ordenación Territorial, Planes Territoriales Parciales y Planes Territoriales Sectoriales.

En este sentido, cabe señalar que mediante Orden de 6 de julio de 2007, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, se dispuso declarar

zela funtsezkoa eta beraz, mintzagai dugun Plana aldatzeko prozedura goiko Dekretuaren 5. artikuluan jasota dagoela.

Bestalde, 3/1998 Lege Orokorrak, Euskal Herriko ingurumena babestekoak ezartzen duenez, Lurraldearen Arloko Planek eta horien aldaketek ingurumenean duten eraginaren gaineko ebaluazio bateratua behar dute. Lege hori ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari dagokionez garatzeko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua, ingurumenaren gaineko ebaluazio bateraturako prozedura arautzen duena, onartu zen.

Era berean, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua eta apirilaren 28ko 9/2006 Legea, zenbait plan eta programak ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzkoa, aplikatuz, Plan honek ingurumenean duen eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedurari ekin zitzaion 2007ko ekainaren 27an; 2007ko urriaren 31n jaso dugu aipatutako ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa aditzera ematen duen Ingurumen Sailburordetzako Ebazpena.

Aipatutako 183/2003 Dekretuaren 16. artikuluan ezarrita dagoenez, planaren aldaketa inolako plan-aurrerakinik gabe egiten bada - espediente honetan bezala - ingurumenaren gaineko eraginaren txosten bakarra egingo da jendaurreko informazioaren izapidearekin batera eta planaren aldaketa behin-behinean onartu ondoren.

Bestalde, 2007ko urriaren 16an aginduzko txostena eskatu zitzaion Kostaldean Zuzendaritza Nagusiari, baina oraindik ez dugu jaso.

Era berean, aipatu dugun Dekretu arautzailearen 5. artikuluari jarraituz, Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran aldeko txostena egin zuen Lurraldearen Arloko Planaren aldaketaren gainean.

Esandakoaren ondorioz bidezkoa da Planaren 1. aldaketarako espedientea onartzea; aldaketa eta bere iraunkortasun txostena (ingurumenean duen eraginaren ebaluazio bateraturako azterlana) epe batean jendaurrean jartzea; aldi berean Administrazio Publiko guztiei entzunaldi-izapidea eskaintzea, euren alegazioak, oharra eta gomendioak egin ditzaten; eta Ingurumenaren gaineko eraginaren txosten bakar bat eskatzea.

Horrenbestez, aipatutako aurrekariak aztertu ondoren eta Euskal Herriko Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 16. artikuluari, eta lehenengo xedapen gehigarriaren aipamenez,

el carácter no sustancial de la presente modificación, por lo que el procedimiento para la aprobación de la modificación del Plan que nos ocupa se encuentra recogido en el artículo 5 del Decreto mencionado en el párrafo anterior.

Por su parte, La Ley 3/1998, de Protección General de Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País vasco establece la necesidad de que los Planes Territoriales Sectoriales así como sus modificaciones se sometan al procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental. En desarrollo de la citada Ley respecto a este aspecto se aprobó el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental.

Asimismo en aplicación del Decreto 183/2003, de 22 de julio y de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente se ha iniciado con fecha 27 de junio de 2007 el procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental de este Plan habiéndose recibido con fecha 31 de octubre de 2007, Resolución de la Viceconsejería de Medio Ambiente por la que se formula el correspondiente documento de referencia para la Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental.

El artículo 16 del mencionado Decreto 183/2003 establece que en el supuesto de que la modificación se tramitase sin fase de Avance -es el caso de este expediente-, se recabará un único informe de impacto ambiental simultáneamente al período de información pública posterior a la aprobación inicial de la modificación del plan o primer acto aprobatorio de la misma.

Por otra parte, con fecha 16 de octubre de 2007, se ha solicitado el preceptivo informe a la Dirección General de Costas, sin que hasta la fecha se haya recibido el mismo.

Asimismo, de conformidad con el artículo 5 del mencionado Decreto regulador, en sesión celebrada el 29 de octubre de 2007 se ha informado favorablemente la modificación del Plan Territorial Sectorial por parte de la Comisión de Ordenación de Territorio.

En consecuencia, procede: aprobar inicialmente el expediente de 1.ª modificación del Plan; someterlo junto con su informe de sostenibilidad (estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental) a un período de información pública; simultáneamente, dar audiencia a todas las Administraciones Públicas Territoriales interesadas, para que puedan formular sus alegaciones, observaciones y sugerencias, y solicitar el informe único de impacto ambiental.

Por lo cual, vistos los antecedentes mencionados, y en ejercicio de la competencia contemplada en el artículo 16 de Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco y por remisión de su Dis-

baita Lege beraren 13. artikuluari, nahiz irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren 5.1 artikuluari jarraituz

XEDATU DUT:

**Lehenengoa.**— Euskal Autonomia Erkidegoko Kantauriko Isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren 1. aldaketari hasierako onepena ematea.

**Bigarrena.**— Plana eta plan horrek ingurumenean duen eraginaren ebaluaziorako azterlana jendaurrean jartzea 45 egun baliouduneko epean, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, partikularrek eta elkarre interesdunek egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten.

Adierazitako epe horretan, herritarrek ikusgai izango dute Planaren aldaketari dagokion agiri teknikoa honako web orrian [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net). eta beste toki hauetan:

– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza  
Donostia kalea, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz

– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoa

Villa Begoña  
Kristina Infantaren kalea, 11 (Ondarreta)  
20008 Donostia-San Sebastián

– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Bizkaiko Lurralde Bulegoa

Ibañez de Bilbao 28, 8. solairua  
48009 Bilbao

**Hirugarrena.**— Jendaurreko informazioarekin batera, entzunaldirako 45 egun baliouduneko epea zabalduko zaie tokiko administrazio publiko guztiei, nahi dutenek planaren gaineko alegazioak, oharrak eta gomen-dioak egin ditzaten. Horretarako Planaren agiria bidaliko zaie.

Erabaki honi ezin zaio helegiterik aurkeztu, Lurraldearen Arloko Planaren aldaketaren behin betiko onepenaren prozeduraren barruko izapidea delako.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko abenduaren 10a.

Ingurumen eta  
Lurralde Antolamendu sailburua,  
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

posición Adicional Primera también del artículo 13 de la mencionada Ley, así como del 5.1 del Decreto 206/2003, de 9 de septiembre.

DISPONGO:

**Primero.**— Aprobar inicialmente la 1.ª modificación del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Ríos y Arroyos de la Vertiente Cantábrica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Segundo.**— Someter el documento de modificación del Plan junto con su correspondiente estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental al trámite de información pública, al objeto de que durante el plazo de 45 días hábiles contados a partir de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, puedan formularse cuantas alegaciones se estimen oportunas por los particulares y asociaciones interesadas.

Durante el referido plazo, el documento técnico de modificación del Plan estará a disposición del público para su examen, tanto en la página web [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) como en los siguientes lugares:

– Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Dirección de Ordenación del Territorio  
C/ Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz

– Oficina Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Villa Begoña  
Infanta Cristina, 11 (Ondarreta)  
20008 Donostia- San Sebastián

– Oficina Territorial de Bizkaia del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Ibañez de Bilbao 28, 8.ª Planta  
48009 Bilbao

**Tercero.**— Simultáneamente al período de información pública se abre un período de audiencia a todas las Administraciones Públicas territoriales interesadas a fin de que en el plazo de 45 días hábiles puedan formular sus alegaciones, observaciones y sugerencias al Plan que les será remitida a estos efectos.

El presente acuerdo no es susceptible de recurso al constituir un acto de trámite dentro del procedimiento de aprobación definitiva de la modificación del Plan.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de diciembre de 2007.

La Consejera de Medio Ambiente  
y Ordenación del Territorio,  
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.